



EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
Ingurumen Sailburuordetza
Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Medio Ambiente
Dirección de Administración Ambiental

EBAZPENA, OTSAILAREN 25EKOA, INGURUMEN ADMINISTRAZIOAREN ZUZENDARIARENA, LASARTE-ORIAKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN IRISMEN-DOKUMENTUA EMATEN DUENA.

AURREKARIAK

2020ko azaroaren 24an, Lasarte-Oriako Udalak eskabide bat aurkeztu zuen ingurumen-organoaren aurrean, Lasarte-Oriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko (aurrerantzean, Plana edo HAPO), Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legean xedatutakoari jarraikiz.

Eskabideari dokumentazio hau erantsi zitzaion: Planaren zirriborroa, hasierako dokumentu estrategikoa eta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duenak, V. eranskinean dakarren formularioa.

Ingurumen-organoak kontsulta-izapidea egin zuen, eta kontsulta horren emaitza espedientean bildu da. Kontsulta-izapidea honako arau hauetan ezartzen da: abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikuluan, eta planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 9. artikuluan. Era berean, Lasarte-Oriako Udalarari izapidearen hasieraren berri eman zitzaion.

Halaber, espedientean jasota dagoen dokumentazioa eskuragarri jarri zen Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean, interesa zuen orok aukera izan zezan ingurumen-arloan egoki irizitako oharrak egiteko.

Indarreko legerian txostenak jasotzeko ezarritako epea igarota, eta jasotako txostenak aztertuta, egiaztatu zen ingurumen-organoak behar beste judizio-elementu bazituela ingurumen-azterlan estrategikoaren irismen-dokumentua egiteko, abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 19. artikulua arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da planen ingurumen-ebaluazioa arautuko duten oinarriak ezartzea, plan horiek ingurumenaren ondorio adierazgarriak izan ditzaketenean; horretarako, ingurumenaren babes maila handia bermatuko da, garapen jasagarria sustatzea helburu hartuta.

Halaber, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuen ebaluazioek egoki bermatu beharko dute, besteak beste, helburu hau betetzen dela: hautabide egokienak hautatu ahal izateko, plangintza-prozesuaren lehen faseetan egingo dela ingurumenaren gaineko eraginei buruzko azterketa, betiere, kontuan izanik jardueren ondoriozko eragin metatzaile eta sinergikoak.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 6.1.a) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa egingo zaie administrazio publiko batek hartzen edo onartzen dituen plan eta programei, bai eta horien aldaketei ere —eta beti ere horiek egitea eta onartzea legez edo erregelamenduz ezarritako xedapen batek eskatzen badu—, baldin eta plan eta proiektu



horiek esparrua ezartzen badute etorkizunean baimena emateko legez ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egin behar zaien proiektuei.

Otsailaren 27ko 3/1998 Legearen 46.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebaluazio bateratua egin behar da (hau da, ingurumen-ebaluazio estrategikoa) arauaren I. eranskineko A) apartatuan jasotako planei lotuta, eta plan horien artean sartzen da Lasarte-Oriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.

21/2013 Legeak, abenduaren 9koak, xedatzen duenez, plan baten ohiko ingurumen-ebaluazioa hasteko, beharrezkoa da ingurumen-organismoak ingurumen-azterlan estrategikoaren irismena zehaztea, eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin ostean.

Arau horrek eskabideari erantsi beharreko dokumentuak xedatzen ditu 18.1 artikuluan, eta, abenduaren 9ko 21/2013 Legeari aurka egiten ez zaionean, urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 8. artikulua zabalduta eta osatu egiten du hasierako dokumentu horri erantsi beharrekoaren edukia.

Amaitzeko, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismena zehazte aldera, aintzat hartu dira 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak IV. eranskinean jasotako eskakizunak, ingurumen-azterketa estrategikoaren edukiari buruzkoak, bai eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuak I. eta II. eranskinetan jasotakoak ere, erreferentziako dokumentuaren edukiari buruzkoak eta ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostenaren edukiari buruzkoak, hurrenez hurren.

Orain arte azaldutako guztiari jarraikiz, espedientean jasotako txostenak aztertuta eta aplikatu beharreko legeak eta arauak ikusita (hau da, otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzkoa; abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; urriaren 16ko 211/2012 Dekretua, planen eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena; irailaren 6ko 18/2020 Dekretua, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen; apirilaren 11ko 77/2017 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; urriaren 1eko 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa; eta aplikatzekoak diren gainontzeko arauak), honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Lasarte-Oriako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren irismen-dokumentua egitea, ingurumen-ondorioetarako soilik, eta honako baldintza hauen arabera:

1. Planaren xedea eta ebaluazio-prozesuaren irismena

Lasarte-Oriako HAPOaren xedea udalerrri osoaren egitura berrantolatzea da (5,81 km²).

Lasarte-Oria udalerrian indarrean dagoen hirigintza-plangintza Plangintzako Udal Arau Subsidiarioetan (aurrerantzean, Arau Subsidiarioak) jasota dago. Arau horiek 2005eko martxoaren 8an onartu ziren behin betiko, eta 2005eko apirilaren 1ean argitaratu ziren GAO-n, non Kotxerak (2008) eta Goiegi Gora (2012) eremuen aldaketak ere argitaratu baitziren. Bestalde, Lasarte-Oriako Udalak eta Donostiako Udalak behin betiko onartu dute (2020) Teresategi eta Errekalde eremuei buruzko bateragarritze-plan bat.

HAPOaren aurrerapenean jasotako proposamenak antolamendu-aukera irekitzat jotzen dira, eta plana idazteko eta izapidetzeko prozesuan zehar egokitu daitezke. Jarraian, Planaren proposamen nagusiak laburbiltzen dira:

- Indarrean dauden Arau Subsidiarioei dagokienez, HAPOak hiri-eremua (hiri-lurzorua eta lurzoru urbanizagarria) pixka bat handitzea proposatzen du, Oria-Gaineko sektorean proposatutako hedapenarekin bat etorritik nagusiki. Eremu horren azalera 16.355 m² handituko da udal-titulartasunean, udalerriko espazio libreen sistema orokorra osatzeko.
- Hiri-lurzoruari eta lurzoru periferikoari dagokienez, behin-behineko hiri-erabilerak hartzeko, landa-lurzoru batzuk okupatzeko aukera aztertzen da, Donostiako (Donostialdea-Bidasoa Beherea) Eremu Funtzionaleko Lurralde Plan Partzialak (aurrerantzean, LPP) hiri-inguruko landa-lurzoru gisa (hiri-hazkundeko perimetroa, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan) sailkatzen dituenak. Lurzoru horiek bat datoz Basaundi, Zatarain eta Zabaletako inguruneekin, eta, kasu horretan, lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuko lirateke, nagusiki bizitegirako, eta landa-izaera galduko lukete. Hala ere, Aurrerapenaren fasean, zona hori lurzoru urbanizaezin gisa sailkatzea erabaki da.
- Bizitegi-lurzorua:

Indarrean dagoen plangintza sendotzeko jarduketak:

- o HAPOaren aurrerapenak finkatu egiten ditu Okendoko kokaleku zaharren eremuetako eraikinak, Loidi eta Goikale arteko txaletak, Kale Nagusiko 71-83 bitarteko lurzatiak eta Txartel kaleko 1, 2, 3, 4, 6, 8, 10 eta 12 zenbakietako eraikinak. Nolanahi ere, aukera dago Okendo plazaren hiri-irudia hobetzen lagunduko duten eta gainerako eremuetan dentsitate eta nahastura handiagoa emango duten aukerak baloratzeko.
- o Beko errota kalea, 1, 3, 5, 7 eta 9: Lehendik dagoen eraikina ordeztzea planteatzen da, 2005eko Arau Subsidiarioetan proposatzen den irtenbidearen arabera (eraikigarritasuna 4.728 m²t areagotuz ordeztzea, dagokion antolamendua zehaztuko duen Plan Berezia sustatuz), eta hura finkatzea eta birgaitzea. Indarrean dauden arau subsidiarioek proposatzen duten eraikigarritasuna lortzeko (8.180 m²t), sestra gaineko eraikuntza-profil bat hartuko da, beheko solairua, sei goi-solairu eta atikoa izango dituenak, eta 44 etxebizitza gehiago sortuko dira.
- o Zabaleta Berri eta Zatarain eremuak: indarrean dagoen plangintza garatzeko aurreikuspenak finkatu dira.
- o Beko kaleko (Loidibarren) udal-orubea: hasteko, arau subsidiarioetan ezarritako indarreko antolamendua finkatzea proposatzen da, bizitegi-bloke bat antolatzea aurreikusten baitu udal-partzela publiko horretan. Profil hau aurreikusten da: beheko solairua, goiko bost solairu eta atikoa, guztiak bizitegirako; 70 etxebizitza berri inguru izango dira.

Arau Subsidiarioekin lotuta aldatutako jarduketa edo proposamen berriak:

- o Kale Nagusiko 13. eta 39. partzelak: bi partzeletan lehendik zegoen eraikuntza-profila solairu batean igotzeko baimena ematea proposatzen da,



jasodura baten bidez edo eraikuntza ordeztearen bidez. Horrela, partzela bakoitzean 2 etxebizitza berri ezarri dira.

- Kotxerak: Bizitegiko eta hirugarren sektoreko garapena proposatzen da, lehendik zegoen industrialdea birmoldatuz eta ibai-fatxadaren tratamendu berdea sendotuz. Guztira, 1.250 etxebizitza berri aurreikusi dira eremu horretan. 4 antolamendu-aukera proposatzen dira: 1. aukera, 2005eko Arau Subsidiarioetan proposatutako antolamenduari dagokiona; 2. aukera, Kotxerak eremuari buruzko Arau Subsidiarioen 2008ko aldaketan aurreikusitako garapena planteatzen duena; eta 3. eta 4. aukerak, ekipamenduetarako eraikinetarako azalera handiagoa planteatzen dutenak; horiek, gainera, oso desberdintasun gutxi dituzte, Oria ibaira ematen duen eraikuntza-aurrealdeko eraikin batzuen antolaketari buruzkoa baino ez, funtsean.
- Oria-Gain: Indarrean dauden Arau Subsidiarioetan, bizitegitarako lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen da. Aurrerapenak indarrean dagoen plangintzaren aurreikuspenak aldatzen ditu, eta dentsitate txikiko etxebizitzaren tipologiak bloke irekien tipologiekin ordezte aurreikusten du, horiek guztiak babes publikoko araubidera bideratzeko aukera emanez. 134 etxebizitza egitea planteatzen da. Bestalde, eremu hori mendebaldeko hegalaria, Oria auzoraino, zabaltzea proposatzen da, bertan sartu beharreko lursail publikoetan, espazio librean sistema orokorraren zati gisa kalifikatzeko.

Zehaztu gabeko beste proposamen ireki batzuk:

- Loidibarrenen kiroldegia betetzen duen lurzatia: kiroldegia Michelin ingurura eramatea proposatzen da, eta, ondorioz, bi aukera planteatzen dira askatutako espaziorako:
 - Ekipamendu-erabilera finkatzea, beste zuzkidura mota baterako.
 - Bertan, bizitegi-eraikin bat antolatzea, merkataritzako eta zuzkidurako etxabeekin, 100 etxebizitza berri ingururako edukierarekin, beheko solairua, goiko sei eta atikoa izango dituztenak.
- Kale Nagusia, 53-61 eta Goikale, 22: aurrerapenean bi aukera planteatu dira:
 - Egungo egoera finkatzea.
 - Lehendik zegoen eraikin guztia (24 etxebizitza) ordezte a, guztira 124 etxebizitza berrantolatzeko aukera emanez. Etxebizitza horiek hiri-morfologiari eta eraikuntza irekiari erantzuten diote, eta hiri-bilbea osatzen dute leku horretan eta haren inguruan.

– Ekonomia-jarduerak:

- Oro har, HAPOaren aurrerapenak lurzoria lehendik zeuden jarduera ekonomikoekin finkatzea proposatzen du.
- Hazkunde-aurreikuspenak, jarduera ekonomikoetara zuzendutako lurzoruen okupazioei dagokienez, dagoeneko kalifikatuta dauden lurzoruen gainean proposatu dira. Txikiardi alden, Teresategin eta Goiegi goran lurzoru-erreserbak

mantentzea proposatzen da. Eremu horiek 65.124 m²-ko azalera eta 54.053 m²-ko eraikigarritasuna dute.

- Kotxerak eremua, gaur egun jarduera ekonomikoetarako erabiltzen dena, bizitegi-erabilerako gisa kalifikatuko da. Proposatutako gainerako eremuek kontuan hartuko dituzte eremuan planteatzen den hiri-eraldaketaren ondorioz sor daitezkeen birkokatze-beharrak (22.000 m²t).

– Ekipamenduak:

- HAPOaren aurrerapenak, oro har, gaur egun udalerrian dauden ekipamenduak finkatzen ditu.
- Ekipamendu-partzela berriak aurreikusi dira Kotxeretan, Oria-Gainen eta Txikiardi alden.
- Gainera, Kotxeretako esku hartzeak udal-brigadak birkokatzea aurreikusi beharra dakar, bai eta gaur egun eremu horretan dagoen irakaskuntza-jarduera ere (ofizio-eskola). Horri dagokionez, hainbat aukera hartu dira kontuan; besteak beste, Oztaranen birkokatze aukera, Kotxeren zati bat berrantolatze aukera edo hiri-bilbeko beste zulo batzuetan ezartzeko aukera.
- Egungo kiroldegia ordezkatzeko planteatzen da, Michelin kirolgunean beste bat eraikiz.

– Espazio libreak:

- Hiri-eremuan, espazio libreen sistema orokor hauek proposatzen dira: Askatasunaren parkea, Torre parkea, Froilán Elespe parkea, Atsobakar parkea (jolaguneak barne), Somoto parkea (berdegunea barne hartzen du Villa Mirentxu inguruan), Tximistarreta parkea (higiezin-multzoa), Brunet parkea, Oria Gaineko parkea, Oztarango parkea (Bista Eder), Kaxkarroko parkea, Zatarango parkea, Martín Berasategi parkea eta Zabaleta Berriko parkea. Espazio horiek 130.924 m²-ko azalera dute guztira.
- Gainera, HAPOak proposatzen du espazio libreen sistema orokorraren kalifikazioa hedatzea Plazaolako (Lekunaenea) eta Oriako behatokiko landa-parkeetara, Brunet parkearen jarraipenean; 211.993 m² eta 2.792 m², hurrenez hurren.
- Guztira, HAPOaren aurrerapenean proposatutako espazio libreek 345.646 m²-ko azalera hartzen dute.

– Mugikortasuna:

- Geltokiko biribilguneen eta Olako biribilguneen arteko Kale Nagusiko zatia oinezkoentzat bihurtzea, garraio publikoaren eta baimendutako ibilgailuen zirkulazioarekin; horrela, oinezkoen erdigune bat sortuko da, ardatz horren bi aldeak barne hartuko dituena: Antonio Mercero plaza, Sagartoki eta Geltoki kaleak (zati batean), Askatasunaren parkea, Brigiden komentuen ataurreak eta San Pedro parrokiaren ingurua; gainera, Lodibarren ekipamendu-gunearekiko lotura ere erraz liteke.



- Erdigune hori Atsobakar parkera eta Urbilera sartzeko oinezkoentzako ibilbidearekin lotzea.
 - Oinezkoentzako ardatz hori Zumaburu auzora zabaltzea, behar bezala formalizatuz eta Kotxerak eremua berrantolatzeke jarraitutasuna emanez, Oztaraneraino.
 - Zirkuituaren pasealekuko eta Oria etorbideko oinezkoen ibilbidea finkatzea, haren hobekuntza baztertu gabe.
 - Bestalde, N-1 errepidearen ekialdean dauden hegaletan (Goiegi, Zabaleta, Oztaran, Basaundi eta Antxisu, besteak beste) kokatutako garapenetako irisgarritasun-baldintzen antolamendua hobetzea proposatzen da: lurzoruak urbanizatzea eta igogailu publikoak ezartzea.
 - Gainera, udalerriko bizikleta-bideen sarea osatzea —Donostiarako eta Andoainerako jarraipena emanez— eta Plazaola bidetik Urnietarekin konektatzeko aukera aztertzea planteatzen da. Jarduketa horien artean, Oria ibaiaren ertzeko oinezkoen eta bizikleten ibilbideari jarraipena ematea proposatzen da. Horretarako, gutxienez Zumaburun (proiektuan), Oria Industriagunean eta Bruneten ekintza zehatzak egiteko beharra planteatzen da.
 - Ibilgailu motordunen bide-irisgarritasunari dagokionez, Planak, oro har, Donostialdeko LPPko zehaztapenak jasotzen ditu, eta, bereziki, Allerruko hegoaldeko lotunea aldatzea proposatzen du, Antxisu auzoko igarotze-zirkulazioa kentzeko.
- Lurzoru urbanizaezinaren beste kategorizazio bat proposatzen da, antolamendu-kategoria hauen arabera:
- Nekazaritza eta abeltzaintza:
 - Balio estrategiko handia: EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPSan balio estrategiko handikotzat jotako orban guztiak sartu dira. Zubillaga, Telleria, Telleriberri, Elkezabal, Elkezabaltxiki eta Lartzabaleta baserrien inguruan daude (orban handiena da); Loidiberri ekialdean beste orban pare bat daude; beste batzuk Pepenea, Eguzkialde eta Illaramendi inguruan, Txokio eta Sollaenea baserrien inguruan, guztiak Goiegiko goialdean; orban pare bat Loidiberrin, Adurizen eta Indanoberri, Tokiona eta Mendibideko eraikinen ondoan; beste luze bat Saltsatealdetik Bidegurutzetako lanberriraino, Saltsate baseritik igarotzen dena; eta beste bat Oztaranalde inguruan.
 - Trantsizioko landa-paisaia: Oria ibaiaren eskuinaldeko hegalaren erdialdean daude, bai eta orban pare bat ere ipar-ekialdean (Buenos Airesen iparraldean), hego-ekialdean (Zabal eta Goikopagoadarraga baserrien inguruan) eta mendi-hegal baxu eta ertaineko eremuetan. Inguru horietan daude herriko ia baserri guztiak, 50 eta 200 metro bitarteko koten artean (altitude handieneko eremuak hegoaldean daude, Hernani eta Urnietako udal-mugetatik gertu).

- Basoa: Malda handiak, erabilera-ahalmen txikia eta/edo higadura-prozesu handiak dituzten eremuak dira. Eremu horietako asko udalerraren hegoaldean daude, Buruntzako mendi-hegaletan.
- Ingurumen-hobekuntza: bere garaian Donostiako bigarren ingurabidea egiteko obrek herriaren iparraldean erasandako eremuan, egungo bidearen ertzeko eremuetan, Lasarte-Oria-Usurbilgo estazio azpielektrikoaren inguruan, Azkorte bidean, Benedikako Espalda inguruan, Buruntzan, Muntterizar izeneko inguruaren hegaletan, Zapal baserriaren eta erreken inguruan, Oria auzoan, Oriagain baserriaren ondoan, eta Lekunaene erreken ibarrean.
- Azaleko uren babesa: lurzoru urbanizaezin gisa sailkatutako Lasarte-Oriako ibai-sare osoa (Oria ibaia herritik igarotzen den tartean eta haren erreka-otoak, eta iparraldeko muturreko jariatze txikiak, Añorga edo Gorga erreken goi-ibarra osatzen dutenak) eta haren babes-ertzak, EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean xedatutakoaren arabera (isurialde kantauriarra). Atsokar hezegunea ere sartzen da, Lasarteko putzua izeneko hezegunea (B3G4 kodea).

Ez da Babes Bereziko kategoria sartzen, eta hori berrikusi egin beharko da.

Gainera, zonakatze globala sistema orokor batzuekin osatzen da:

- Komunikazio-azpiegituren eremuak: AP-1/AP-8, N-1, N-634, GI-11, GI-2132, GI-3831, GI-3832, Azkorte bidea, Galarretarako bidea.
 - Zerbitzu-azpiegituren zonak: Txikiardiko azpiestazio elektrikoa eta udal-hilerria.
 - Espazio libreen sistema orokorra: Lekunaenea edo Plazaola parkea eta Oriako behatokiaren ingurunea.
- Gainera, lurzoru urbanizaezinari baldintzatzaile gainjarriak planteatzen zaizkio honako hauei dagokienez: intereseko zuhaitz autoktonoak eta/edo Batasunaren intereseko habitatak, tokiko intereseko zuhaitzak, Lasarteko nekazaritza eta abeltzaintzako eremu estrategikoa, Zabalagako hiriarteko landa-parkearen eremua, onura publikoko mendien (OPM) eremua, interes geologikoko eremuak, paisaia babesteko eremuak, hiri-hornidurako ur-bilketak babesteko eremuak, meatze-ustiapenerako emakida-laukiak dituzten eremuak, higadura-arriskuko eremuak, uholde-arriskuko eremuak, kutsatuta egon daitekeen lurzoruko eremuak, eta akuiferoak kutsatzeko arriskua dagoen eremuak. Gainera, beste batzuk sartzea aurreikusten da, hala nola baso-sutearen arriskua, arrisku teknologikoak, kultura-ondarearen babesa eta eremu akustikoak.

2. Ingurumen-helburu estrategikoak, printzipioak eta aplikatzeko jasangarritasun-irizpideak.

Plana egiteko funtsezko oinarritzat hartuko dira IV. Ingurumen Esparru Programa 2020koaren helburu estrategikoak eta jarduketako irizpideak. Horrez gain, arau hauetan bildutako irizpideak jaso beharko dira: Euskal Herriko ingurugiroa babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; urriaren 16ko 211/2012 Dekretua; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Natura Kontserbatzeko Legearen testuategia onartzen duen apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretua.

Era berean, ingurumena babesteko, planari aplikagarri zaizkion lurralde-antolamenduko planetan eta plan sektorialetan finkatutako irizpide, helburu eta zehaztapenak hartuko dira kontuan.

Zehazki, Plana zuzentzeko, garapen jasangarriko honako printzipio hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Lurzorua zentzuz eta intentsitatez erabiltzea eta lehendik ere artifizialdurik dauden lurzoruen erabilera intentsiboa lehenestea, balio agrologiko handiko lurzorua eta lurzoru naturala urbanizaziotik babestuz.
- b) Hiri-segregazioa, hiri-barreiadura eta mugikortasun behartua saihestea irisgarritasuna sustatzeko asmoz, lurzoruaren erabileren plangintza integratuaren, mugikortasunaren, eta hiri-egitura dentso, trinko eta konplexuen bidez.
- c) Lurzoruaren zigilatzea murriztea, lurzorua iraunkortasun handiagoz erabiliz eta ahal beste eginkizuni euts diezaion sustatuz.
- d) Habitatak eta espezieak, natura-ingurumena eta konektagarritasun ekologikoa zaintzea eta hobetzea.
- e) Paisaia eta kultur ondarea kontserbatu eta hobetzea.
- f) Ondare geologikoa kontserbatzea.
- g) Ur-masen egoera ekologiko ona lortzea, bai eta baliabidearen erabilera iraunkorra ere.
- h) Baliabide naturalen kontsumo jasangarria sustatzea: ura, energia, lurzorua eta materialak.
- i) Energia-aurrezpena, energia berriztagarrien eraginkortasuna eta erabilera eta kogenerazioa sustatzea.
- j) Aire garbia bermatzea, bai eta zarata eta argi-kutsadura handien mende bizi diren biztanleen kopurua murriztea ere.
- k) Klima-aldaketaren aurreko urrakortasuna gutxitzen laguntzea, kaltea arintzeko neurriak eta egokitzeko neurriak integratuz.
- l) Arrisku naturalak gutxitzea.
- m) Lurzoru kutsatuaren kudeaketa hobetzea, berme juridikoa eta eragileen nahiz lurzoruaren erabiltzaile potentzialen jarduera indartuta.

3. Esparru geografikoa eta ingurumen-arlo garrantzitsuak

HAPOaren lurralde-eremua Lasarte-Oria udalerrri osoa da, eta 5,81 km²-ko lurralde-hedadura du.

Lasarte-Oriako sare hidrografikoa Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikokoa da, gehiena Oriako Unitate Hidrologikokoa eta erkidego arteko arroetakoa, eta udalerrriaren iparraldeko azalera txiki bat Urumeako UHkoa eta erkidego barruko arroetakoa. Oria ibaia da udalerrriaren ibilgu nagusia, eta bertan isurtzen dira udalerrriko erreka eta aldizkako ibilgu ia guztiak, iparraldeko muturreko urak izan ezik, horiek Añorgako erreka goi-ibarra osatzen baitute (Urumea UH, Igara ibaiaren arroa). Gainera, Atsobakar hezegunearen zati bat udalerrriaren iparraldeko mugen barruan dago (hezegune hori Lasarteko putzua B3G4 izenarekin jasota dago hezeguneen inbentarioko III. taldean).

EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialaren arabera (isurialde kantauriarra), eta osagai hidraulikoa kontuan hartuta, herritik igarotzen den Oria ibaiaren ibilbide osoa VI. mailakotzat jotzen da, eta 600 km²-ko arroa du (< C). Oztaran-Lekunaene eta Basotxo errekek 0. maila dute, ibiadarraren arroa 1 eta 10 km² artekoa da, eta gainerako ur-ibilguez 00 mailako jariatzea dute, 1 km²-tik beherako ibiadar-arroarekin.

Lasarte-Oriako herrigune ia osoa interes hidrogeologikokotzat jotako eremuetan dago. Udalerrriaren iparraldeko mugan, bi kokagune identifikatzen dira interes geologikoko eremu gisa: Lasarteko

olistolitoa eta Oriako ibai-terraza. Hala ere, eremu horiek ez dira interes geologikoko leku (IGL) gisa inbentariatu.

Intereseko landarediari dagokionez, udalerrian Batasunaren intereseko habitat hauek kartografiatzen dira: 91E0* Haltzadiak eta lizardiak, *Alnus glutinosa* eta *Fraxinus excelsior*, 6510 Altitude baxuko sega-belardi pobreak (*Alopecurus pratensis*, *Sanguisorba officinalis*), 4030 Txilardi lehor europarrak, 6210 Larre mesofiloak (*Brachypodium pinnatum*). Bestalde, nabarmentzekoa da harizti eta baso misto atlantikoko zuhaitziak daudela. Printzipioz, Oria Gain eremuan aurreikusitako garapena da zentzu horretan eragina izan dezakeen bakarra, belardiak eta zuhaitz-masaren bat ezabatuz.

Intereseko faunari dagokionez, Oria ibaian kolaka (*Alosa alosa*), uhalde-enara (Riparia riparia), ur-zozoa (*Cinclus cinclus*), martin arrantzalea (Alcedo atthis) eta ipurtatsa (*Mustela putorius*) daude. Atsobakar hezegunean lezkari arrunta (*Acrocephalus scirpaceus*) nabarmentzen da.

Udalerrria ez dator bat gune babestuekin, ezta EAeko Korridore Ekologikoen Sareko elementuekin ere. Era berean, ez da identifikatzen Plan Hidrologikoko Eremu Babestuen Erregistroko elementurik.

Udalerrriaren hegoaldean, Buruntzako onura publikoko mendian, (OPM, 2.009.2) lau eremu daude, 122.431 m²-ko azalerarekin.

Udalerrriaren ipar-ekialdeko landa-eremuan, EAeko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Planaren arabera, balio estrategiko handiko lurzorua dituzten hainbat eremu identifikatu dira, guztira 290.948 m²-ko azalera dutenak.

LPPk Lasarte-Oriako landa-ingurunearen zati bat Lasarteko Eremu Estrategikoaren eta Zabalagako hiriarteko parkearen barruan sartzen du.

Paisaiari dagokionez, udalerrria Lasarte-Oriako ikus-arroaren barruan dago, zeina oso arruntzat jotzen baita, eta paisaia-balio oso txikia du. Ez dago EAeko Paisaia Apartekoen Katalogoan. Paisaiaren zehaztapenei buruzko LPParen aldaketaren arabera, Lasarte-Oriako hirigunea bat dator "CO.1 Oria Beheko korridorea" paisaia-unitatearekin, zeina paisaia lehengoratzeko, hobetzeko edo aldatzeko paisaia-interes bereziko eremu gisa identifikatu baitago.

Udalerrian, lurzorua kutsa dezaketen jarduerak izan dituzten edo oraindik badituzten 53 kokaleku identifikatu dira guztira; horietatik 44 industria-jardueri dagozkie, eta 9 hondakindegiei. Kokaleku horiez gain, beste kokaleku batzuen azalera Donostia, Urnieta eta Usurbilgo herri mugakideekin partekatzen da; beraz, kokaleku horiei gehitu behar zaizkie industria-jatorriko beste lau (2 Donostiarekiko muga, 1 Urnietarekiko muga eta beste bat Usurbilgokoan), bai eta zabortegi bat ere (Urnietarekiko muga). Azpimarratu behar da kutsatuta egon daitezkeen kokalekuak daudela Kotxerak eta Txikiardi aldeko hirigintza-eremuetan.

Lasarte-Oriako hirigunea Oria ibaiaren eskuinaldean dago, eta uholde-arrisku handia du. Oro har, alubioi-lautadak 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua du, eta, gainera, 10 eta 100 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskua duten eremuak daude. Oria ibaia, herrigunetik igarotzen den tartean, II. taldeko ARPSI ES017-GIP-16-02 Zubieta-Oria eremuan sartzen da. Arrisku hori duten hirigintza-garapen nagusiak Kotxerak eta Txikiardi aldea eremuetan proposatutakoak dira, eta zati batean 500 urteko errepikatze-denborako uholde-arriskuko orbanean kokatzen dira.

Udalerrian ez dago akuiferoak kutsatzeko arrisku handia eta oso handia duen lurzorurik.

Udalerriko zarata-foku nagusiak garraio-azpiegiturak dira, bereziki, A-1 errepidea, udalerrria iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duena. Udalerrriaren iparraldeko muga ere AP-8 autobidea eta

Euskal Trenbide Sareko trenbidea daude. Kale nagusietako trafikoak, hala nola Donostia Etorbideak, Hipodromo Etorbideak eta Kale Nagusiak, eragozpenak sor ditzake zaratagatik. Gainera, kontuan hartu beharreko zarata-fokuak izan daitezkeen hainbat industria-gune ditu herriak. Lasarte-Oriako zarata-mapen arabera (2016), gaur egun A-1 errepidetik hurbil dauden eremuetan, hala nola Kotxerak eremuan, aztertutako hiru aldietan (egunez, arratsaldez eta gauez) gainditu egiten dira bizitegi-erabilerarako ezarritako kalitate akustikoko helburuak.

Halaber, eremu akustikoei buruzko atalean, kontuan hartu behar dira EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 13/2012 Dekretuaren 20. artikuluan eta III. eranskinean ezarritakoak.

4. Jarduketak egiteko eremu desegokiak

Ingurune fisikoan ondorio esanguratsuak dituzten jarduketak egiteko helburua betetzeko, ez dira egokiak izango aurreko atalean jasotako ingurumen- eta/edo.kultura-balio garrantzitsuak dituzten eremu guztiak.

Era berean, printzipioz, desegokiak izan daitezke uholde-arriskuko eta/edo hots-kutsadurak eragindako eremuetako hirigintza-garapen berriak.

HAPOak planteatzen dituen proposamenen arabera, garapenaren xede diren eremu batzuek uholde-arriskua dute. Nolanahi ere, Planak jasotzen duen erabilera-proposamenak bateragarria izan beharko du honako arau hauetan ezartzen diren mugekin: Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduaren 9. artikulua (849/1986 Errege Dekretua, apirilaren 11koa); eta Kantauri Ekialdeko demarkazio hidrografikoaren Espainiako zatiaren plan hidrologikoa berrikusteko araudiaren (urtarrilaren 8ko 1/2016 Errege Dekretuaren bidez onartua) 40. artikulutik 42.era artekoak.

Halaber, eragin akustikoa duten eremuek, oro har, hots-kutsadurari buruzko araudia bete beharko dute, bai eta EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 13/2012 Dekretua ere. Etorkizunean ezin izango da hirigintza-garapenik egin kanpoaldeko kalitate akustikoko helburuak betetzen ez diren eremuetan, hargatik eragotzi gabe aipatutako Dekretuaren 43. eta 45. artikuluetan ezarritakoa.

HAPOak antolamendu xehatua garatzen duen eremuetan, justifikatu beharko da eremu bakoitzerako definitutako kalitate akustikoko helburuak betetzen direla.

Hirigintza-garapen berriei heldu ahal izateko, naturaren, kulturaren eta ingurumen-arriskuaren ikuspegitik aipagarriak ez diren guneak lehenetsi beharko dira, hala nola lurzoru antropizatuak eta lurzoru kutsatuak.

5. Aurretiaz egindako kontsultei emandako erantzunen ingurumen-azterketa laburra

Jarraian aipatzen dira ingurumen-alderdi garrantzitsuenak, ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotako txostenetan agertzen direnen artean:

Natura-ondareari dagokionez:

- Lasarte-Oriako lurzoru urbanizaezinaren zonakatzea berrikustea gomendatzen da, babes bereziko kategoria bat sartzeko, non jasoko baitira natura-ondarearen ikuspuntutik baliorik handiena duten elementuak. Kategoria horretan sar litezke "interes bereziko zuhaitzi autoktonoen eremuak" eta "naturaren eta/edo basogintzaren babes bereziko lurzoria", HAPOaren Aurrerapeneko Baldintzatzaile Gainjarrietan jasota daudenak, baina, nolanahi ere, udalerriko zuhaitz-formazio autoktonoak eta Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak ere sartu behar dira.

- Aurrerapeneko hirigintza-proposamenei buruz hasiera batean egin daitekeen balorazio positiboa alda liteke HAPOaren bertsio aurreratuagoetan egin daitezkeen aldaketak edo handitzeak ikusita. Hori dela eta, ingurumen-azterketa estrategikoak ingurumen-eraginen azterketa sakona egin ahal dezan, beharrezkotzat jotzen da proposamenak ahalik eta lasterren zehaztea, horien isla grafiko bat barne (alde batera utzi gabe doikuntzen ondorioz gerora aldaketa txikiak jasan ditzaketela, baina neurritsuak betiere).
- LPPko "hiri-hazkundearen perimetroari" eta HAPOak bere bizitegi-alternatibaren barruan jasotzen dituen eta irismena zehaztu gabe duten LAGei dagokionez, komenigarritzat jotzen da HAPOaren fase aurreratuagoetan perimetro-muga hori desagertzea eta, nolahi ere, barnealdeko jarduketa zehaztuta eramatea, behar bezala ebaluatu ahal izateko. Horrela, ingurumen-azterketa estrategikoan dagokion ebaluazioa egin ahal izango da, HAPOan eskuragarri dagoen informazioan oinarrituta; prebentzio-, zuzenketa- eta konpentsazio-neurriak ere ezarri ahal izango dira, beharrezkoa izanez gero.
- Oso positibotzat jotzen da HAPOaren planteamendua, Oria ibaiaren eskuineko ertza leheneratzeari dagokionez. Parke linealean eta udalerrian proposatutako beste landa-parke batzuetan egin beharreko jarduketak HAPOaren ondorengo bertsioetan gehiago zehaztea gomendatzen da, egokiak diren baloratzeko, eta ingurumen-integrazio handieneko irizpideak kontuan hartzea, hala nola natura-ingeniaritzako teknikak aplikatzea edo birlanaketatik espezie autoktonoak erabiltzea (Ihobek argitaratutako *Lorategi eta berdegune jasangarriak diseinatzeko eskuliburua* kontuan hartzea gomendatzen da).
- Adierazle batzuk kalkulatzeko gomendatzen da (habitat naturalek, erdi-naturalek eta naturalizatuek hartzen duten azaleraren ehunekoak; udal-plangintzak babes bereziko eta azaleko uren babeseko kategoriekin babestutako azalera; artifizializatutako azaleraren ehunekoak guztizko azalarekiko; hiri-lurzoruaren hektareako biztanle-kopurua; biztanle bakoitzeko azalera artifiziala; hiri-berrikuntzako eremuetan eta lurzoru urbanizagarrian kokatutako etxebizitza berrien guztizko kopurua, eta garraio-azpiegituren dentsitatea), betiere adieraziz zein den egungo balioa, zer balio hartu behar duten ingurumen-helburuak bete direla baieztatuz (arrakasta-irizpidea) eta plangintza aplikatzeagatik hartuko duten balioaren zenbatespena.

Kultura-ondareari dagokionez:

- Planaren Aurrerapenean jasotako intereseko ondasunen zerrenda zuzentzat jotzen da, honako ondasun hauen tratamenduari dagokionez izan ezik: San Pedro eliza, Plazaolako zubibideak eta Brigiden komentua.
- Ildo horretan, arkitektura-ondasunen kategorizazio-proposamen bat egiten da eta arkeologia-elementuak definitzen dira.
- Kultura-ondasun arkitektonikoetarako, hiru kategoria proposatzen dira: Berezia, Ertaina eta Tokikoa.
 - Babes bereziko kultura-ondasun gisa sartu beharko dira honako hauek: San Pedro eliza. Kale Nagusia 23, eta Brigiden komentua, Kale Nagusia 30.
 - Babes ertaineko kultura-ondasun gisa honako hauek proposatzen dira: Brunet y Compañía ehun-fabrikaren azpiegitura hidraulikoa; Lasarteko zubibideak (Plazaola landa-parkea); Norbega SA Errekalde hiribidea, 55; Kaxkarro tunela, eta Trenbidearen tunela.
 - Honako hauek tokiko babeseko ondasunak izatea gomendatzen da, Aurrerapenean "elementu gehigarri (tokiko maila)" gisa zehaztutakoez gain: Nagusia 49 etxea. Kale Nagusia, 49; Apaizetxea. Kale Nagusia 16; Nagusia 51 etxea. Kale Nagusia 51;



Michelin. Arkitektura-multzoa; Garaje-eraikina. Kale Nagusia 18; JEMA. Zirkuito ibilbidea; Plaza Berria frontoia. Oria etorbidea; Lasarteko bolatokia. Geltoki 27; Geltoki 11 etxea. Geltoki 11; Eche Garaikoa etxea. Kale Nagusia 53; eta Nagusia 79 etxea. Kale Nagusia 79.

Ustezko zona arkeologiko deklaratzat jotzen dira Aurrerapenean jasotako elementu hauek: Lasartetarren multzoa (E gakoa); San Pedro eliza (A gakoa) eta Brigiden komentua (A gakoa).

Babes zibileko arriskuei dagokienez:

- Lasarte-Oriaren kasuan, Oria ibaiaren ur-ibilgua 10, 100 eta 500 urteko errepikatze-denborako uholde-orbanen bidez identifikatu da (ARPSI ES017-GIP-16- 2, Lasarte - Oria). Uholde-orbanen eraginpeko eremuak Brunet, Oria Industriagunea, Kotxerak, Zumaburu, Okendo, Michelín eta Txikierdi Alde hiriguneak dira.
- Orendain eta Baliarrain udalerrietan dagoen lbiur urtegia (lbiur errekastoa, Oria ibaiaren arroa) 8 Hm³-ko ahalmenarekin haustek uholde-uraldiak eragin litzake Lasarte-Oriako udalerrian. Hori dela eta, hirigintza-plangintzan kontuan hartu beharko dira presa hautsiz gero sortuko liratekeen uraldiak, eragina izan baitezakete azterketaren eremuan.
- Egin beharreko obretatik erator litezkeen drainatze-obra guztiak diseinatzeko, kontuan hartuko dira prezipitazio horiek, dagozkien itzulera-emariekin korrelazioan, eta kontuan hartuko da azterketaren eremuko prezipitazio-isomaximoak 300 eta 325 mm/egun bitartekoak direla 500 urteko errepikatze-denborarako.
- Arrisku sismikoari dagokionez, udalerria IV. eta V. intentsitate-eremuetan dago, 2006ko iraileko Arrisku Sismikorako Larrialdi Planaren arabera. Beraz, udalerriak ez du Larrialdi Sismikorako Planik egin behar.
- Udalerraren hegoaldeko eremuetan baso-sutearen arriskua ertaina eta handia da, baita udalerraren ekialdeko zenbait eremu txikitari ere. Eremuaren gainerakoan, arriskua txikia da.
- Salgai arriskutsuak zirkulatzeko bideak Ap-8, N-1, N-634, GI-2132 eta GI-11 dira. Larrialdien kudeaketa optimoari dagokionez, egokitzat jotzen da komunikabideen aldaketetan larrialdietako ibilgailuen (suhiltzaileak, sanitarioak, etab.) zirkulazioa errazteko ekimen guztiak egotea.

6. Ingurumen-azterlan estrategikoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdien definizioa eta irismena

Planean jasotako hainbat zehaztapenek indarreko Arau Subsidiarioetan ezarritakoak aldatzen ditu. Ingurumen-ebaluazio berriak jarduketa-proposamen berriek sortutako ondorio espezifikoak hartuko ditu oinarri. Alegia, kontuan hartu behar diren ingurumenaren gaineko eraginak honako hauek izango dira soilik: Planak jasotzen dituen proposamen berrien edo dagoeneko existitzen diren aldaketen ondoriozkoak; eta ez dira kontuan hartuko onartutako plangintza aldatu izan ez balitz ere gertatuko liratekeen ondorioak.

Ingurumen-azterketa estrategikoak, gutxienez, ingurumen-ebaluazioari buruzko Legearen (abenduaren 9ko 21/2013) IV. eranskinean ezarritako edukia izan beharko du, eta hura osatu beharko da urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren II. eranskinean jasotzen denarekin (dekretu horrek plan eta programen ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura arautzen du.

Aurrekoarekin bat etorriz, garatuko diren apartatuek honako eskema metodologiko honi jarraitu beharko diote:

1. Proposatutako planaren deskribapena
 - 1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak
 - 1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena
 - 1.3. Plangintza-aukerak
2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea
 - 2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena
 - 2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak
3. Ingurumen-ondorioak
4. Prebentzio-, zuzenketa-eta konpentsazio-neurriak
5. Ingurumena zaintzeko programa
6. Ingurumen-laburpena
7. Laburpen ez-teknikoa

Ebaluatzekoa den dokumentuaren ezaugarriak direla eta, uste dugu ingurumen-azterketa estrategikoak (aurrerantzean, Azterlana) hainbat alderdi landu behar dituela ahalik eta zabalen eta xeheen; honako hauek, zehazki:

6.1. Planaren deskribapena

Deskribatuko da zer alderdik konfiguratzen duten plana, eta argi eta garbi identifikatuko da plana gauzatzeak etorkizunean eragin ditzakeen ekintzetatik zeinek izan ditzaketan ondorio kaltegarriak ingurumenean. Hori guztia, honako apartatu hauetan adierazitako egitura eta xehetasunekin:

6.1.1. Plangintzaren esparrua eta helburuak

a. Azterlanean, laburpen txiki bat jasoko da planarekin lortu nahi diren helburu zehatzei buruz. Azterlanak era espezifikoan justifikatu beharko du nola hartu diren kontuan Planaren elaborazioa egitean Ebazpen honetako 2. apartatuan ingurumena babesteko jaso diren helburuak eta printzipio eta irizpide jasagarriak.

Zehaztuko da zer arau-esparruk arautzen duen plana onartzeko prozedura, eta sustatzailea, organo sustatzailea eta behin betiko onespeneren organo substantiboa identifikatuko dira.

c. Hierarkian Plana baino goragoko mailan dauden planak edo programak identifikatuko dira. Azaletik deskribatuko dira planaren xedearekin edo esparruarekin zerikusia duten plan edo programa horien zehaztapenak eta aurreikuspenak, baita ingurumena babesteko planari aplikatzen zaizkion irizpide, helburu eta zehaztapenak ere.

d. Hala badagokio, adieraziko da zer irizpide eta zehaztapen ezarri diren hierarkian Planaren gainetik dauden planen ingurumen-adierazpen estrategikoan, baldin eta irizpide eta zehaztapen horiek ebaluazioaren xede den Planaren eremuan edo helburuan aplikatzekoak badira.

e. Aplikatzekoak direnean, zehaztuko dira Planarekin hierarkikoki lotuta ez dauden hainbat eremutako (Europar Batasuneko, Estatuko, autonomia-erkidegoko edo toki-mailako) arauetan eta beste plan eta programetan ingurumena babesteko finkatutako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, eta modu espezifikoan justifikatuko dira ebazpen honen 2. apartatuan jasotako ingurumena babesteko helburuak eta jasagarritasun-printzipio eta -irizpideak.



Zehazki eta beste batzuen artean, honako plan eta arau hauek hartuko dira kontuan:

- EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (LAG).
- Donostiako Eremu Funtzionaleko Lurralde-Plan Partziala (Donostialdea-Bidasoa Beherea)
- EAeko Hezeguneak Babestu eta Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala.
- EAeko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala.
- EAeko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (isurialde kantauriarra).
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Arloko Plana.
- Jarduera Ekonomikoetarako eta Merkataritza Ekipamenduetarako Lurzoruaren Sorkuntza Publikoaren Lurralde Plan Sektoriala.
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa (2015-2021); bereziki uholde-arriskuko zonei lotutako zehaztapenak.
- EAeko Uholdeak Prebenitzeko Plan Integralaren Azterlan Plubiometrikoa (Eusko Jaurlaritza, 1992).
- Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Uholde Arriskua Kudeatzeko Plana (2015-2021).
- Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legearen 23. eta 31.4. artikulua.
- EAeko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 36. artikulua eta hurrengoak.

6.1.2. Planaren irismena, edukia eta garapena

a. Planean hautatutako aukeren bidez indarreko antolamenduaren barruan aldatuko diren alderdi zehatzak eta zehaztapenak deskribatuko dira. Planaren irismena behar bezala definituta utzi behar da, plana egin aurreko aurreikuspenak (Planaren ingurumen-ebaluazioa egitean indarrean zeudenak) eta aurreikuspen berriak alderatuz.

Azterlanak HAPOaren helburu nagusien laburpen txiki bat jaso beharko du, eta era berean, xehetasun osoz deskribatu beharko ditu Planean txertatutako proposamen, aldaketa edo xehakapen berriekin lotutako ekintzak —aldaketa edota xehakapen horiek eragindako eremuan indarrean den hirigintza-antolamendua oinarri hartuta bereiziko dira, betiere ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan baditzakete—; horrez gain, eremuaren garapenerako beharrezkoak diren jarduketa guztiak hartuko dira kontuan.

Ildo horretan, Azterlanak jarduketa-eremuetarako proposamen zehatzen definizioa jaso beharko du, HAPOaren aurrerapenean aurkeztzen diren jarduketa-aukera irekiak zehaztuz.

Era berean, lurzoru urbanizaezinean garatu beharreko jarduketan proposamena sartu beharko da Azterlanean.

b. Planean proposatutako aldaketak gauzatzeko erabiliko diren proiektu eta jarduketan ezaugarriak buruzko aurreikuspen bat egingo da. Zehazki, arreta berezia jarriko zaie hirigintza-garapen berriak, azpiegitura berriak edo inguruneke eraldaketa nabarmenak eragin ditzaketen jardueri, baita lurzoru kutsa dezaketen jarduerak nozitzen edo nozitu dituzten lurzoruetan eragina dutenei ere.

c. Ingurumenean eragina izan dezaketen Planeko ekintzak deskribatu eta kokatuko dira, eta garrantzi handienetik txikienera hierarkizatutako dira, kontuan hartuta haien kokapen zehatza, izaera, magnitudea eta baliabide naturalen kontsumoa. Horrela deskribatutako plan-ekintza bakoitzari kode

bat esleituko zaio. Kode hori azterlanaren hurrengo apartatuetan erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

d. Plana onartu ondoren, haren garapena zehaztu eta plangintzaren geroagoko faseak aipatuko dira, baita planaren zehaztapenak ezartzeko tresnak ere. Era berean, aurreikusiko da garapen-tresna eta/edo proiektu horiek ingurumen-ebaluazioaren mende egon daitezkeela.

e. Nolanahi ere, Plana garatzeko zenbat denbora aurreikusten den erantsiko da, eta, hala badagokio, aurreko apartatuan azaldutako ekintzetarako denbora-aurreikuspena zehaztuko da.

f. Epigrafe honetan biltzen den informazioa kartografikoki islatuko da dagokion eskalan, eta lurraldearen erabilera islatuko du, baita ingurumen-ondorio nabarmenak ekar ditzaketen Planaren aurreikuspen eta jarduketak ere. Informazio kartografikoa atxiki beharko da, gutxienez hauek jasoko dituenak: eremuaren mugaketa eta jarduketaren kokapena, pdf eta shape formatuetan.

6.1.3. Plangintza-aukerak

a. Azaletik deskribatuko dira plana emateko prozesuan kontuan hartu diren aukera guztiak. Aukera horiek bideragarriak izan behar dute teknikoki eta ingurumenaren aldetik, eta hauei buruzkoak izan daitezke: kokalekua, garapen teknikoa, aldi baterako garapena, kudeaketa, antolamendua, baliabide naturalen erabilera edo beste edozein alderdi. Era berean, 0 aukera edo esku ez hartzeko aukera ere hartuko da kontuan; kasu horretan, honako hau izango da erreferentzia: jarduketa-eremuaren alderdi garrantzitsuek izan dezaketen bilakaera HAPOaren proposamenak aplikatu ezean.

LPParen hiri-hazkundeko perimetroari eta HAPOak bere bizitegi-aukeraren barruan jasotzen dituen lurralde Antolamenduaren Gidalerroei (LAG) dagokienez (horien irismena ez da zehaztu), komenigarritzat jotzen da perimetro-muga hori desagertzea eta, nolanahi ere, behar bezala ebaluatu ahal izango diren barneko jarduketa zehaztutara eramatea.

b. Aukera horien irismena deskribatuko da, eta zehaztuko da zer alde dagoen aukera bakoitzaren arabera Planean jasotako proiektuen eta ekintzen artean, 6.1.2.b apartatuan deskribatutako proiektuekin eta 6.1.2.c apartatuan deskribatutako ekintzekin alderatuta.

c. Laburpen bat ere jasoko da azaltzeko zergatik baztertu diren aztertutako plangintza-alternatibak eta zergatik onartu den azkenean proposatutako alternatiba.

d. Aztertutako alternatibak kartografikoki jasoko dira.

6.2. Ingurumenaren ezaugarriak zehaztea

Azterlanak deskribatu beharko ditu zein diren ingurumenak egun duen egoeraren ezaugarri nagusiak Planak eragiten duen eremuan. Deskribapen horretan, elementu abiotikoen eta biotikoen ezaugarriak aztertuko dira, bai elementu bakoitzaren ikuspuntu sektorialetik, bai beren interakzioen ikuspuntutik, ingurumenaren egungo egoeraren ikuspegi integratua emanaz.

Ebaluazio-eremuaren ingurumen-ezaugarrien zehaztapenean bereziki nabarmenduko dira Planak —indarreko antolamenduaren aldean— egiten dituen aurreikuspen berrien eta aldaketan ondorioz eragina izan dezaketen elementuak.

Planaren eraginpeko esparrua, antolamendu-esparru osoa izateaz gain, esparru horren ingurunerik hurbilena ere izango da, eta ingurune hori mugatuko da planaren ekintzek ingurumen-ondorio garrantzitsuak izan ditzaketen eremuetara.

Ingurumenaren kalitatearen gaineko alderdiei buruzko informazioa azterlanetan edo bestelako erreferentzia-dokumentuetan oinarrituta dagoenean, emandako datuen iturria identifikatuko da, eta adieraziko da zein den titulua, urtea, egilea, eta, hala badagokio, zer esteka balia daitekeen lana bere osotasunean kontsultatzeko.



Azterlanak eskalako planoak jasoko ditu, ingurunearen aldagaiak islatzeko modukoak.

6.2.1. Ingurumen-egoeraren deskribapena

Honako hauek izango dira, gutxienez, aintzat hartuko diren ingurumen-alderdiak:

a. Ingurune fisikoa. Zenbait faktore hartuko dira kontuan, hala nola arroka ama eta zorupea, haien iragazkortasuna, masak eta ur-puntuak, faktore klimatikoak eta lurzoru-mota. Lurzoru-motari dagokionez, dituzten ezaugarriak direla-eta gaitasun agrologiko handiko modura katalogatutako eta babestutako lurzoruen erreferentzia aipatu beharko da.

Ildo horretan, Planaren eremuan dauden interes hidrogeologikoko guneen deskribapena sartu beharko da.

b. Natura-ondarea. Jasota utziko da natura-intereseko eta interes ekologikoko elementuak daudela, hala nola mehatxatutako fauna- eta flora-espezieen banaketa-eremuak, Batasunaren intereseko habitatak, naturagune babestuak, hezeguneak, espezie autoktonoen basoak, landaredia, flora eta fauna autoktonoak, interes geologikoko lekuak, korridore ekologikoak, eta abar. Dauden elementuen kontserbazio-egoerari buruzko datuak emango dira, baita interes-mailari, kalteberatasunari, eta egungo presioei eta mehatxuei buruzko eta Plana gauzatzearen ondorioz areagotu daitezkeen elementuei buruzko datuak ere.

Hasierako dokumentu estrategikoak Lasarte-Oriako udalerraren ezaugarri nagusien laburpen bat jasotzen du, zeina, oro har, egokitzat hartuko baita natura-ondarearen alderdiei dagokienez; hala ere, zenbait datu zehaztu beharko dira, eragindako administrazio publikoei eta interesdunei egindako kontsulten izapidean jasotakoen artean.

Ildo horretan, Lasarte-Oriako lurzoru urbanizaezinen zonakatzea berrikusi beharko da, Babes Bereziko kategoria bat sartzeko, natura-ondarearen ikuspuntutik baliorik handiena duten elementuak bilduz. Kategoria horretan sar daitezke "interes bereziko zuhaitzi autoktonoen eremuak" eta "naturaren eta/edo basoen babes bereziko lurzoria", HAPOaren Aurrerapeneko Baldintzatzaile Gainjarrietan jasota daudenak, nahiz eta, nolana ere, udalerriko zuhaitz-formazio autoktonoak eta Batasunaren intereseko lehentasunezko habitatak barne hartu behar diren.

Bestalde, nabarmendu behar da udalerriko natura-ondarearen ikuspuntutik interes handiena duten elementuak antolamendu-kategoriekiko baldintzatzaile gainjarri gisa jaso beharko direla.

c. Paisaia. Pertzepzioaren ikuspegitik interesgarria den elementurik ba ote dagoen aztertuko da.

d. Ingurumen-arriskuak eta -arazoak. Arriskuei buruz bildu ahal izan diren datu guztiak aurkeztuko dira, honako hauei buruzkoak, besteak beste: uholdeak izateko arriskua, lurzoruko kutsaduratik eratorritako arriskua, lurpeko uren kutsadurarekiko kalteberatasuna, arrisku geoteknikoak, klima-aldaketak eragindako arriskuak edo aipatu beharreko beste edozein ingurumen-arrisku.

Orobat, airearen, uraren edo lurzoruaren kalitateari dagokionez hautemandako ingurumen-arazoak deskribatuko dira, egoera akustikoa barne. Kutsagarriak izan daitezkeen iturriak eta kutsagarriak izan daitezkeen jarduerak jasan dituzten lurzoruak identifikatuko dira, eta baliabide naturalen erabilgarritasuna aztertuko da, bereziki urarena.

Hala dagokionean, aipatu ingurumen-arrisku eta -arazoen eraginpean egon daitezkeen eremuak identifikatu eta lokalizatuko dira.

e. Kultura-ondarea. Adieraziko da zein den hautemandako elementu bakoitzaren garrantzia, kalteberatasuna, tresna eta babes maila. Era berean, kultura-ondasunari kalifikazioa eta babesa

eman dion arau-xedapenaren erreferentzia aipatuko da. Ondare immaterialeko elementuak hartuko dira kontuan.

Alde horretatik, kultura-ondasunen babesa zehazteko, kontuan izango dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak ezarritako irizpideak, ebazpen honen 5. atalean jasotakoak.

f. Apartatu honetan, gainera, egon daitezkeen beste ingurumen-baldintzatzaile batzuk landuko dira, baldin eta planaren ingurumen-ebaluaziorako garrantzitsuak badira, hala nola mugikortasunari eta garraioari buruzko alderdiak, garapen-eremuko irisgarritasun-baldintzak, baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoari lotutako beharrak (ura, energia etab.), jendea bizi den eremuen eta kaltetua izan daitekeen biztanleriaren presentzia eta abar.

6.2.2. Laburpena: ingurumen-alderdi garrantzitsuak

Aurreko apartatuan azaldutako deskribapen eta datuak oinarri hartuta, ingurumenaren egungo egoera aztertuko da Planaren eraginpeko esparruan, eta labur-labur jasoko da zein diren planeko jarduketan ondoriozko elementu, prozesu, arazo eta ingurumen-arrisku garrantzitsuenak ingurumen-ebaluazioko prozesuan. Arreta jarri beharko zaie ingurumenaren ikuspegitik interesgarriak diren esparru, elementu edo egoerei, baita eragina jasan dezaketen alderdiei ere; horretarako, kontuan hartuko dira planean jasota dauden jarduketan ondoriozko proiektuen eta ekintzen kokapena eta ezaugarriak.

Ingurumenaren aldetik problematikoak diren eta gerora proposamenak gauzatzean zaindu beharko diren eremuak detektatu beharko ditu ingurumen-azterlan estrategikoak.

Eremuaren ingurumen-diagnostiko egoki bat egin beharko da, eta haren harrera-gaitasuna, arrisku-guneak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko aukera eman beharko du. Atal hau idazteko, txosten honen 4. apartatuan aipatu diren ingurumen-arlo garrantzitsuak eta aplikatu beharreko araudietan arlo horietarako ezartzen diren mugaketak hartuko dira kontuan, gutxienez.

Planak planteatzen dituen jarduketan garapena baldintzatu ahal duten beste alderdi batzuk dira kutsatutako lurzoruen presentziarekin lotutakoak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko Dekretua (urriaren 16ko 213/2012 Dekretua) aplikatzearen ondoriozko mugaketekin zerikusia dutenak. Bi alderdi horiek azterketan jorratuko dira.

6.3. **Proposatutako planaren ingurumen-ondorioak**

a. Apartatu honetan, identifikatu eta baloratu beharko da zer ondorio izan ditzaketen planean bilduriko ekintzek ingurumen-kalitateko elementuen gainean, eta ondorio horien ezaugarriak deskribatuko dira. Planaren ondorioak identifikatu eta horien ezaugarriak deskribatzeko, aztertuko da zer-nolako interakzioa dagoen lanean aurreikusitako ekintzen eta eragin ditzaketen ingurumen-elementuen ezaugarri espezifikoaren artean, bai eta zer ingurumen-arazo eta -arrisku sortu edo areagotu daitekeen.

Ezaugarrien deskribapenean, argi eta garbi zehaztu beharko da zer motatako ondorioak dauden, honako hauek bereizita: zeharkako ondorioak, metatze-ondorioak, ondorio sinergikoak, epe labur, ertain eta luzerako ondorioak, ondorio iraunkorrak eta aldi baterako ondorioak.

b. Azterlanak bereziki nabarmendu beharko ditu Planak indarreko antolamenduan sartutako jarduketa-proposamen berriekin eta aldaketekin lotutako ekintzen ingurumen-ondorioak. Nolanahi ere, kontuan hartu beharko dira dagoeneko finkatuta dauden jarduketan eta aurreikusitako jarduketa berrien ekintzak elkarrekin konbinatuz gauzatzearen ondorioz sor daitezkeen metatze- eta sinergia-ondorioak.



c. Zehaztuko da, hala dagokionean, hautemandako ondorioak eraginik sortzen ote duen Natura 2000 Sareko lekuetan eta 6.2.1.b apartatuan jasotako beste gune batzuetan zaindu beharrekoak diren elementuetan.

d. Era berean, eta hala dagokionean, zehaztuko da zer ondorio dakarren zenbait ekintzaren konbinazioak. Gainera, ingurumen-izaerako edozein ondorio bereiziko da, baldin eta biztanleriaren, giza osasunaren edo ondasun materialen gainean ondorio kaltegarri eta nabarmenak izan baditzaie.

e. Horrela deskribatutako planaren ondorio bakoitzari kode bat esleituko zaio. Kode hori azterlanaren hurrengo apartatueta erabiliko da, baldin eta aipatu behar bada.

f. Beste alderdi batzuen artean, honako eragin hauek aztertuko dira:

- Aztertu beharko da zer eragin izan dezakeen uholde-arriskuak hirigintza-garapenetan, eta behar bezala justifikatu beharko da indarrean dagoen plan hidrologikoaren araudia betetzen dela, uholde-arriskuko zaintza-eremuen erabilera-mugei dagokienez (40. eta 41. artikulua). Justifikazio hori arloan eskumena duen organo baten azterlan hidraulikoan edo txostenetan oinarritzen bada, horiek ere gainerako dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa eskatu ahal izateko.
- Kutsatuta egon daitezkeen kokaguneetan egindako indusketen eta lur-mugimenduen ondoriozkoak.
- Azterlanak balioetsi beharko du proposatutako jarduketak egokiak ote diren lurraldearen lotura ekologikoa lortzeko, Natura Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko Legearen (abenduaren 13ko 42/2007 Legea) 3. artikuluan zehazten denaren arabera. Hain zuzen ere, biodibertsitatearentzat garrantzi handiena duten naturaguneen arteko lotura izango da kontuan, Ebazpen honen 3. apartatuan xedatu denaren arabera.
- Era berean, karakterizatu eta baloratuko dira Batasunaren intereseko habitatetan, espezie autoktonoen basoetan eta interes bereziko beste eremu batzuetan HAPOk proposatutako antolamenduak dituen ondorioak.
- Etorkizunean hirigintza-garapenak eginez gero, aztertu beharko da ea betetzen diren aurreikusitako erabilerarako ezartzen diren kalitate akustikoko helburuak, eta, horretarako, indarreko araudian ezarritako metodologia erabiliko da, ebaluatzen den antolamendu-mota bakoitzerako egokituta (egiturazkoa edo xehea).

g. Identifikatu eta kodetutako ondorio bakoitza baloratzeko, honako alderdi hauek hartuko dira kontuan, besteak beste:

- Gertatzeko probabilitatea, iraupena, maiztasuna eta itzulgarritasuna.
- Ondorioen larritasuna eta irismen espaziala.
- Eraginpean gera daitezkeen eremuaren balioa eta kalteberatasuna, honako hauek kontuan hartuta:
 - o Natura-, kultura- eta paisaia-ezaugarri berezirik dagoen.
 - o Aurkako ingurumen-baldintzarik dagoen, airearen, uraren edo lurzorua kalitate-estandarrak edo muga-balioak gaindi dezakeenik.
 - o Planak zer neurritan sortu edo areagotu ditzakeen ingurumen-arriskuak.

h. Ahal den guztietan, ondorioak zenbatetsiko dira, eta horretarako, datu neurgarriak erabiliko dira; datu horiek Planen aurreikusitako jarduketak eta proiektuak gauzatzearen ondorioz deskribatu diren ingurumen-faktoreen egoera-aldaketei buruzkoak izango dira. Hala badagokio, adieraziko da zer ziurgabetasun-maila dagoen ondorio horien iragarpenean.

i. Era berean, ahal denean, ondorioak kartografia bidez lokalizatuko dira, eta, halaber, ahalegina egingo da zehazteko plan edo programaren zer fasetan gerta litezkeen ondorio horiek, aurreikuspenen arabera.

j. Adieraziko da ea hautemandako ondorio horren sorburu-ekintzak eskatzen duen ala ez planaren zehaztapenak beste plan eta programa batzuetan txertatzea, eta kasu bakoitzean zehaztuko da zein den eraginpeko plangintza-tresna.

k. Hierarkizatu egingo dira hala deskribatutako ingurumen-ondorioak, eta haien garrantzi erlatiboa nabarmenduko da.

6.4. Prebentzio-, zuzenketa-eta konpentsazio-neurriak

a. Apartatu horretan, deskribatuko da zer neurri aurreikusten den azterlanaren 3. apartatuan deskribatutako ingurumen-ondorio kaltegarriak prebenitzeko, murrizteko eta, hala badagokio, konpentsatzeko. Hartuko diren neurriek bermatu egin beharko dute ez dela ingurumen-ondorio esanguratsurik sortuko, planaren ekintzak garatzearen eta etorkizunean gauzatzearen ondorioz. Haien helburua izango da natura-baliabideak eta natura- eta kultura-ondarea babestea, natura-arriskuak prebenitzea eta atzemandako ingurumen-arazoaren aurrean hobetu eta egokitzea.

b. Proposatutako neurriek koherenteak izan beharko dute aurreikusitako ingurumen-ondorioekin. Neurriak deskribatu egingo dira, eta azterlanaren 3. apartatuan identifikatu diren eta prebenitu, zuzendu edo konpentsatu nahi diren ondorioekin lotuko dira. Bereziki, eta beste batzuen artean, honako neurri hauek zehaztuko dira:

- Berariazko neurriak, natura-ondarea eta lotura ekologikoa zaintzeko interes berezia duten udalerriko eremuak babestekoak.
- Uholde-arriskua prebenitzeko neurriak. Horiek zehazteko, ebazpen honen aurreko apartatueta aipatutako planetan ezarri diren irizpideak hartuko dira kontuan: EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzen Lurralde Plan Sektoriala (E.2 apartatua) eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoa (2015-2021).
- Ibai-ibilguen inguruan kokatzen diren eraikingintzako garapen eta finkapenaren xede diren hiri-eremuei dagokienez, EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzen Lurralde Plan Sektorialean eta Kantauri Ekialdeko Plan Hidrologikoan (2015-2021) ezarritakoa errespetatzen dela bermatu beharko da. Hartara, saihestu beharko dira, bai ibaien ertzen alterazioa eta artifizializazioa, bai ibai-korridorearen aniztasun eta funtzionaltasun ekologiko eta paisajistikoan laguntzen duten elementuena, eta ahal denean, horiek lehengoratzea, biziberritzea eta hobetzea sustatuko da.
- Gainera, potentzialki kutsagarriak diren jarduerak jasaten dituzten edo jasan dituzten lursailak daudenez, eta ondorioz, lursail horiek etorkizuneko erabiltzaileentzat eta/edo ingurumenarentzat arriskutsuak izan daitezkeenez, gauza bera egin beharko da lurzorua kalitateari buruzko adierazpena egiteari begira, Plana behin betiko onartu aurretik, Lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko ekainaren 25eko 4/2015 Legeari jarraikiz.
- Hala badagokio, kalitate akustikoaren helburuetara iristeko behar diren neurriak ezarriko dira, EAEko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuaren 40. artikuluan zehaztutakoaren arabera, eta eremu akustikoak eta erabilera aurrekusiak kontuan hartuta.
- Era berean, irizpideak zehaztuko dira planaren garapena paisaian integratzeko; horretarako, erabili beharreko espezieak eta birlandatu beharreko azalerak ezarriko dira, eta kontuan hartuko dira Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egindako "Lorategi eta berdegune jasagarriak diseinatzeko eskuliburua" argitalpenean jasotako gomendio eta neurriak. Alde horretatik, landareztatze- eta lorategi-lanetan ez dira

inola ere erabiliko inbaditzaileak izan daitezkeen espezie aloktonoak, hala nola *Fallopia japonica*, *Robinia pseudoacacia*, *Cortaderia selloana* eta abar. Era berean, neurriak hartuko dira espezie horien hedapena deuseztatzeko eta saihesteko.

- Azkenik, Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak eskatzen duenez, ingurumen-azterketa estrategikoak barnean hartuko ditu klima-aldaketaren gaineko eragina arintzeko eta hartara egokitu ahal izateko neurriak. Xede horrekin, IHOBEK egindako gida metodologiko hauek erabili ahal izango dira erreferentzia gisa: “Klima-aldaketara egokitzeko udal-programak egiteko gida. Udalsarea 21 lan-koaderno” eta “Euskadiko Hirigintzaren Plangintzari buruzko eskuliburua klima-aldaketa arintzeko eta klima-aldaketara egokitzeko”.

c. Adieraziko da planaren zein zatitan txertatu diren proposatutako neurriak, eta espresuki zehaztuko da planean bildutako zein dokumentu teknikotan jaso diren neurri horiek.

d. Hala badagokio, prebentzio, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriak proposatuko dira, horiek aplikatzea komenigarri edo egingarria denean, bai plangintzaren geroagoko fase edo etapetan, bai Plana gauzatzeko etorkizuneko proiektuetan.

e. Kostu ekonomikoren bat dakarten prebentzio eta zuzenketarako neurrien aurrekontua ere jasoko da, eta horrez gain, horiek gainbegiratzeaz arduratuko den agentea edo pertsona zein den adieraziko da.

6.5. Ingurumena zaintzeko programa

a. Azterlanak ingurumena zaintzeko programa bat garatuko du, eta, bertan, Plana aplikatzeak dakartzen ondorioak berrikusteko aurreikusitako neurriak deskribatuko dira. Neurri horien helburua alderdi hauek kontrolatzea izan beharko da:

- Planak ingurumenean izan ditzakeen ondorio kaltegarriak prebenitu, murriztu edo zuzentzeko neurriak behar bezala ezartzen direla gainbegiratzea.
- Ingurumen-elementu garrantzitsuen eboluzioa zaintzea, bai eta plana martxan jarri aurretik zeuden ingurumen-arazoaren eboluzioa ere.
- Plana gauzatzeko eragindako ingurumen-ondorioak egiaztatzea, aurreikusi gabeko eragin kaltegarriak azkar identifikatzeko eta horiek saihesteko edo zuzentzeko neurri egokiak hartu ahal izateko.
- Aztertzea ea prebentzio- eta zuzenketa-neurri osagarriak hartu behar den plana egikaritzeko aurreikusitako garapen-tresnetan eta proiektuetan.

b. Jarraipen-neurriak identifikatu egingo dira, eta neurri horiek azterlanaren 6.4. apartatuan jasotako babes, zuzenketa eta konpentsaziorako neurriei bat etorri beharko dute.

c. Ingurumena zaintzeko programak jaso beharko du zer adierazle proposatzen diren azterlanean, baita datuak biltzeko zer proposamen zehatz egiten den kasu bakoitzean ere, aldizkakotasunari eta erabiliko diren metodoei dagokienez.

Besteak beste, atal honetan kontuan hartu beharko dira ebazpen honen 5. apartatuan jasotzen diren natura-ondareari buruzko adierazleak.

6.6. Ingurumen-laburpena

a. Ingurumen-alderdiak planean nola txertatuko diren deskribatuko da. Xehetasunez aztertuko da nola hartu diren kontuan eta nola betearazi diren ingurumena babesteko ezarritako irizpideak, helburuak eta zehaztapenak, azterlanaren 6.1.1 apartatuan deskribatu denari jarraikiz.

b. Aztertuko da zer-nolako probabilitatea dagoen planak etorkizunean ingurumenean eragin adierazgarriak izateko, eta behar diren argudioak emango dira honako hau egiaztatze aldera: proposatutako babes, zuzenketa eta/edo konpentsaziorako neurriak planean txertatuz gero, oso arrisku txikia dagoela ondorio esanguratsu horiek gertatzeko eta, ondorioz, ez dagoela eragozpenik plana garatzeko. Ondorio hori gauzatu ahal izateko, azterlanaren gainerako apartatueta jasotako informazioei buruzko erreferentzia egokiak erabiliko dira.

6.7. Laburpen ez-teknikoa

a. Azterlanak barnean hartuko du emandako informazioaren laburpen ez-tekniko bat, eta ebaluazio-prozesuan jorratutako gaietako prestakuntza espezifikorik ez duten pertsonen erraz ulertzeko moduan idatzita egon beharko du laburpen horrek.

b. Laburpen horrekin batera, gainera, egindako ebaluazioa hobeto ulertzen lagunduko duen informazio grafikoa ere erantsi beharko da; edo, bestela, informazio hori erraz eskuratzeko behar diren erreferentziak jaso beharko dira.

7. Jendaurreko informazioko izapideak eta kontsultak.

Urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikuluan eta ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, organo sustatzaileak jendaurrean jarriko du Planaren hasierako bertsioa, baita ingurumen-azterketa estrategikoa ere, gutxienez 45 egun balioduneko epean.

Era berean, kontuan hartuta urriaren 16ko 211/2012 Dekretuaren 12. artikulua eta abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 22. artikulua zer xedatzen duten ukitutako administrazio publikoei eta interesdunei egin beharreko kontsultei buruz, erakunde eta pertsona interesdunen zerranda hau hartuko da kontuan:

- Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.
- Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Uraren Euskal Agentziari. Eusko Jaurlaritza.
- Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa, Uraren Euskal Agentziaren bitartez (URA).
- Ihobe. Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa. Eusko Jaurlaritza.
- Mendietako eta Natura Ingurunekeko Zuzendaritza Nagusia. Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Ingurumenekeko Zuzendaritza Nagusia. Ingurumenekeko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia. Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako Departamentuko Kudeaketa eta Plangintzako Zuzendaritza Nagusia.
- Euskal Trenbide Sareko Zuzendaritza Nagusia (ETS).
- Gipuzkoako Ekologistak Martxan elkarteak
- Eguzki (Eguzkizaleak) elkarteak

8. Dokumentazioa aurkezteko jarraibideak.

Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 24.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, organo substantiboak ingurumen-ebaluazio estrategikoaren espediente osoa igorriko dio ingurumen-organoari, honako hauek barnean hartuta: plan edo programaren azken proposamena, ingurumen-azterketa estrategikoa, informazio publikoaren eta kontsulten emaitzak, eta laburpen-dokumentu bat, plan edo programaren azken proposamenean honako alderdi hauek nola txertatu diren azaltzen duena: ingurumen-alderdiak, ingurumen-azterketa estrategikoa eta hori irismen-agirira nola egokitzen den, egindako kontsulten emaitza, eta kontsulta horiek nola hartu diren aintzat.

Ingurumen-organoaren funtzioa, prozeduraren fase horretan, funtsean, Ingurumen Adierazpen Estrategikoa egitean datza, aipatutako arauaren 25. artikuluan xedatzen denaren arabera.

Jarraibide hauek zehazten dira ingurumen-organoak eskabidea berrikustea erraztu ahal izateko eta, azken finean, aurkeztu den eskabideari buruzko ebazpena ahalik eta bizkorren eta erosoan eman ahal izateko.

Bestalde, jarraibideak lehenik organo substantibora bideratzen badira ere, garrantzitsua da proiektuaren sustatzaileak ere haien ezaguera edukitzea eta dagokion guztian betetzea:

Ingurumen-adierazpen estrategikoa telematikoki aurkeztuko da, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean horri buruz dauden jarraibideen arabera. Hona hemen horietarako esteka:

<https://www.euskadi.eus/tramitacion-del-procedimiento-de-evaluacion-ambiental-estrategico/web01-a2inginp/es/>

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa gidaliburuaren arabera egin eta aurkeztu beharko da. Gidaliburua ingurumen-organoaren webgunean dago eskuragarri, esteka honetan:

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/tramitacion_eae/es_def/adjuntos/GUIA-presentacion-documentacion.pdf

Bigarrena.- Lasarte-Oriako Udalari ebazpen hau jakinaraztea.

Hirugarrena.- Ebazpen hau Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren webgunean argitaratzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 25a.

INGURUMEN ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE ADMINISTRACIÓN AMBIENTAL



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
Javier Agirre Ocajo
Y MEDIO AMBIENTE